

Nork: [Inaxio Esnaola](#) - Abu 30, 2018

JUAN INAXIO ASTIAZARAN: "SAGARDO EGUNA FESTA POLITA DA ETA GIRO ONEKOA"



Juan Inaxio Astiazaran, Zubietako Iruin sagardotegian. (Argazkia: Inaxio Esnaola)

Estropadek eta sagardoak irudikatzen dute Donostiako Euskal Jaiei hasiera. Larunbat honetan, hilak 1, XXXIII. Sagardo Eguna egingo dute Konstituzio plazan. 11:00etatik 14:00etara sagardoa dastatzeko aukera egongo da. Bitarte horretan, 12:30ean, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak topa eta omenaldia egingo du.

Aurten, Juan Inaxio Astiazaran eta Isabel Diaz senar-emazteak omenduko dituzte. Astiazaran sagardoaren ekoizleak dira eta Zubietan dute Iruin sagardotegi eta jatetxea. Omenaldiaren oso pozik dagoela adierazi dio Astiazaranek IRUTXULO KO HITZARI. "Ni bezala badira lehenago sagardogintzan lan asko egindakoak, eta beraien esker ona jasotzea benetan polita da".

Astiazaran sagardoak hasieratik izan du lekua Donostiako Sagardo Egunean. "Festa polita da eta giro onekoa. Gainera ordutegia murriztu zutenetik egokiagoa iruditzen zait", dio Astiazaranek.

Euskal Jaiei atariko eta Juan Inaxio Astiazarari elkarrizketa irakurri ahal izango dira biharko astekarian.



EUSKAL JAIK JAIK ZUBIETA



INAXIO ESNAOLA

Ez dago iruzkinik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website

BIDALI IRUZKINA



Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?



AZKENAK



CARLA BAUTISTAK UTZITA JOKATUKO DU REALEAN



ZIGARRO FABRIKAREN MEMORIAREN ZAINDARIAK



JUAN INAXIO ASTIAZARAN: "SAGARDO EGUNA FESTA POLITA DA ETA GIRO ONEKOA"



ISABELLE HUPPERT AKTOREA DA 66. ZINEMALDIAREN KARTELEKO PROTAGONISTA